

**R/. Zu zara gure poza, kurutz salbatzailea!**

1) Hor Jaunaren ikurrina, kurutzea dirdaidun;  
bizia danak hor hilez, bizitza emon euskun. R/.

2) Zugaitz gainetik zu, Kristo, zu danen Erregea.  
Zu bizitz, poz, itxaropen, Kristo salbatzailea. R/.

3) Errege, zure Odola munduarentzat argi,  
zu, Jauna, basamortuan gure salbamen harri. R/.

4) Lur Barrirako bidean zu itxaropen-zugaitz;  
egarri dira herriak, zu ur bizien harkaitz. R/.

**Zure oinetan, Jauna,** / hemen zure herria  
maitasunez eskatzen / bihotzen bakea.  
Izan zaitez guretzat / eskari-iturria,  
munduko ilunpeetan / argi ta bidea.

Kezkatan gagoz hemen / estu eta larriz  
kurutze gain-gainetik / begira errukiz.  
Askatu gu betiko / zure odol garbiz  
zugan sinistu dagigun / fede sutsu, barriz.



# **GARIZUMALDIRAKO ABESTIAK**

**eta**

## **«B» URTERAKO ANTIFONAK**

<sup>2</sup>Batasun honek eskatutzen dau  
arimak ere bat egin;  
buru-bihotzez bizi gaitez  
bat eginikan zurekin.  
Zaran osoa eskeintzen zara  
izanez gure atsegin.  
Zuk jarritako maite-legean  
ez genduko nahi hutsegin.

<sup>3</sup>Etsaiak bere tentaldietan  
ez dau inolaz etsiko;  
eragozpenak kendu eiguzuz,  
guk ez zaitugu utziko.  
Batasun honek iraun daiala  
gure bizitza guztiko,  
azken orduan sartu artean  
zure etxean betiko.

Jaungoikoaren hegoenpean (G.J.-2. 117z.)

R/. Jaun- goi - ko - a - ren he - go - en - pe - an, ze ba - ke -  
an - ze ba - ke - an! In - dar - guz - ti - ak di - tu - e - na - ren ge - riz - pe -  
an - ge - riz - pe - an! Jau - na, nik di - not ni - re ge - riz - pe dot - zu - re -  
gan: Bi - hotz guz - ti - az na - go Jau - na - ren es - - ku - e - tan.

**Jaungoikoaren hegoenpean** ze bakean, ze bakean;  
indar guztiak dituenaren gerizpean, kerizpean.  
Jauna, nik dinot «nire gerizpe dot Zuregan».  
Bihotz guztiaz nago Jaunaren eskuetan.

*Zugana ez da / hurreratuko / zoritxarrik;  
zure\_etxolara / ez da\_etorriko / izurrik. R/.*

**ZURE AURPEGI BILA**

R/. Zu - re\_aur - pe - gi bi - la ga - bil - tza - gu, Jau - na; Zu zai - tu - gu ar - gi e -  
- ta sal - ba - men, Zu, Jau - na, bi - zi - a - ren ba - bes.

Uste on izan Jaunagan eta izan gizon,  
jaso bihotza eta Jaunagan sendo egon.  
Zelan dan aita bere umeentzat bihozbera,  
halantxe da Jauna fededunentzat onbera. R/.

**Abadearen agurra**

V/. Jaun - goi - ko gu - re Ai - ta - ren e - ta Je - su Kris - to gu - re Jau - na -  
ren gra - zi - a e - ta ba - ke - a zu - e - kin. R/. Be - dein - ka - tu - a Jaun -  
goi - ko - a, Je - su Kris - to gu - re Jau - na - ren Ai - ta.

**Damu otoitzerako**

V/. E - rru - ki, Jau - na. R/. Pe - ka - tu e - gin do - gu e - ta.  
V/. A - ger - tu gu - ri, Jau - na, zeu - re bi - hotz o - na.  
R/. E - ta sal - ba ga - gi - zuz.

## Amaierarako

### JAUNGOIKO SANTUA...

Herrikoa

Jaun- goi- ko san- tu- a, Jaun- goi- koin- dar- tsu- a, Jaun- goi- kohil- ez- ko- rra:  
gatx guz- tie- ta- tik gor- de ga- gi- zuz, Jau- na.

JAUNGOIKO SANTUA

JAUNGOIKO\_INDARTSUA

JAUNGOIKO\_HILEZKORRA:

GATX GUZTIETATIK

GORDE GAGIZUZ, JAUNA.

### Beste batzuk

**Zabaldu egizuz**, Jauna,  
zure errukizko atearak  
eta askatu guregan  
pekatuaren kateak.  
Parka, Jauna zure  
semeon hutsegiteak.

Parkatu eiguzu, Jauna,  
egin dogun txarragaitik;  
parkatu baita egiteko  
itxi dogun onagaitik  
eta ez gaitezana  
aldendu zure bidetik.

## ANTIFONAK

### HAUTS EGUNA

#### HAUSTERRE

Udaita 21

E- rru- ki, Jau- na, pe- ka- tu e- gin do- gu- ta

**R/.** Erruki, Jauna, pekatu egin dogu-eta.

Erruki nitaz, ene Jainko, zeure **ma**itasunaz,  
kendu nire hobena zeure neurribako errukiz.  
garbitu nagizu zeharo neure errutik,  
garbitu neure **pe**katutik. **R/.**

Autortzen dot, bai, neure hobena,  
begi aurrean dot eten barik neure **pe**katua.  
Zure aurka, zure aurka bakarrik, egin **do**t pekatu,  
zure begietan oker **da**na egin dot. **R/.**

Ene Jainko, sortu bihotz garbia nigan,  
barritu arnasa sendoa nire barruan.  
Ez nagizu bota zeure aurretik,  
ez kendu niri zeure arnasa santua. **R/.**

Poztu nagizu barrero zeure salbazinoaz,  
sendotu nagizu zeure arnasa oparoaz.  
Edegi, Jauna, nire ezpanak,  
eta nire ahoak iragarriko dau zure gorespena. **R/.**

## GARIZUMAKO V. DOMEKEA /B

GARIZUMAKO 5. DOMEKEA /B Ps 50 Udaia'15



Bi - hotz gar - bi - a, Jain - ko, sor - tu e - gi - zu ni - gan.



Erruki nitaz, ene Jainko, zeure maitasunaz,  
Kendu nire hobena zeure neurribako **errukiaz**.  
Garbitu nagizu zeharo neure **errutik**,  
garbitu neure **pekatutik**. **R/**.

Ene Jainko, sortu bihotz garbia nigan,  
barritu arnasa sendoa nire **barruan**.  
Ez nagizu bota zeure **aurretik**,  
ez kendu niri zeure arnasa **santua**. **R/**.

Poztu nagizu barriro zeure salbazinoaz,  
sendotu nagizu zeure arnasa **oparoaz**.  
Erakutsiko deustedaz gaiztoei zure **bideak**,  
eta Zugana bihurtuko dira **pekatariak**. **R/**.

## GARIZUMAKO II. DOMEKEA /B

Grz02B - Sal 116 Udaia'21



R/. I - bi - li - ko naz Jau - na - ren au - rre - an, bi - zi - du - nen lu - rral - de - an.



**R/**. **Ibiliko naz Jaunaren aurrean, bizidunen lurraldean.**

Sendo nengoan **fedean**,  
«Ni bai zoritxarreko» esatean be.  
Mingarri jako **Jaunari**  
bere fededunen **heriotza**. **R/**.

Bai, zure zerbitzari naz, Jauna, †  
zure zerbitzari **ezereza**,  
askatu dozuz nire **kateak**.  
Gorespen-oparia deustut **eskeiniko**  
eta Jaunaren izenari **dei** egingo. **R/**.

Beteko deustadaz Jaunari agindutakoak,  
herri guztiaren **aurrean**,  
Jaunaren etxeko **atarian**,  
Jerusalem, zure **erdian**. **R/**.

### GARIZUMAKO III. DOMEKEA /B



*Sal 19 [18], 8. 9. 10. 11 (R/. ik. Jn 6, 68c)*

#### **R/. Zeuk daukazuz, Jauna, betiko bizia daben hitzak.**

Jaunaren legea bikain, barrua arnasbarrritzen dau;  
Jaunaren agindua fidagarri, †  
heldubakoa zuhur egiten dau. **R/.**

Jaunaren arauak zuzen, bihotzaren pozgarri;  
Jaunaren agindua distiratsu, begien argigarri. **R/.**

Jaunaganako begirunea garbi, iraunkor betiko,  
Jaunaren erabagiak egiazko, dan-danak bidezko. **R/.**

Urrea, urre garbitua baino desiragarrriago,  
eztia, ezti barria baino gozoago. **R/.**

### GARIZUMAKO IV. DOMEKEA /B



*Sal 137 [136], 1-2. 3. 4-5. 6 (R/. 6a)*

#### **R/. Nire mihina ahosabaian josi bekit, zutaz gogoratu ez banendi.**

Babiloniako ibaiertzean jesarriak gengoan negarrez,  
Sionen oroipenez.

Ur ondoko sahatsetan  
itzita genduzan zitarak dindilizka. **R/.**

Han, erbesteratu ginduezanak kantu eske genduzan,  
gure zapaltzaileak kanta alaien eske:  
«Kanta gureztat Siongo kantak». **R/.**

Zelan kantatu Jaunaren kantarik  
atzerriko lurraldean?

Jerusalem, zutaz ahaztu banendi,  
gelditu bekit eskua elbarri. **R/.**

Josi bekit mihina ahosabaian,  
zutaz gogoratzen ez banaz,  
niretzat pozbiderik bikainena  
Jerusalem ez bada. **R/.**

## GARIZUMAKO I. DOMEKEA /B

♩ = 70 Grz01B - Sal 24 Udaia'21

Zu-re bi-de-zi-dor guz-ti-ak gra-zi-a e-ta  
le-ial-ta-su-na, Jau-na, zu-re I-tu-na gordetzen da-be-nentzat.

**R/.** Zure bidezidor guztiak  
grazia eta leialtasuna, Jauna,  
zure ituna gordetzen dabenentzat.

Azaldu niri, Jauna, zeure **bide**ak,  
erakutsi zeure bidezidorrak.  
Gidatu nagizu zeure leialtasunean, eta **irakatsi**,  
Zeu zara-eta nire Jainko salbatzailea. **R/.**

Izan gogoan, Jauna, zeure errukia eta maitasuna,  
betidanikoak **dira**-eta.  
Gogoratu nitaz zeure maitasunean,  
zeure ontasunari dagokionez, Jauna. **R/.**

Ona eta zuzena **da** Jauna,  
bidea erakusten deutse pekatari*ei*.  
Apalak zuzenbidez **dar**oaz,  
bere bidea erakusten deutse apalei. **R/.**

## JAUNARTZERAKO

### JESUSEN BEGIRADA (MILA KOLORE DANTZAN...)

“*Holan egin da beti*”,  
alde batera itxi,  
aldaketa ez uko:  
Eliza barri, danok lekuko.

**Begirada zelan dan adi  
Jesusi begira bizi  
harrera ona gure alkartetan  
mila kolore dantzan bihotzetan.**

Gaixo zein pekatari  
baztertuta, danari  
guztiok alkar josi  
mundua jagon: hor «Laudato 'si».

**Begirada zelan dan adi  
Jesusi begira bizi  
harrera ona gure alkarteetan  
mila kolore dantzan bihotzetan.**

Baltzak eta zuriak  
herri txiki, huriak,  
erdaldun zein euskaldun  
mila kolore danok fededun.

**Begirada zelan dan adi  
Jesusi begira bizi  
harrera ona gure alkarteetan  
mila kolore dantzan bihotzetan.**

## Ebanjelioari harrera egiteko

*J* = 75 **Ebanjelio aurreko goralpena**



R/. Ain-tza, Je-sus, zu-ri be-ti: Zu za-ra gu-re ar-gi.

## Sagara-goralpena

**SAGARA GORALPENA**



Hau da si-nis-me-na-ren mis-te-ri-o-a.



Zeu-re ku-ru-tze ta biz-tu-e-raz mun-du-a-ren Sal-ba-tzai-le za-ra



-na, sal-bau ga-gi-zuz, Je-sus Jau-na.

## Epiklesia



V/. Honen bitar-tez, honekin e-ta ho-nen-gan Zuri, Jainko Aita



ahalguztidun ho-rrri Espiritu Santuarekin ba-te-an os-pe-e-ta ain-tza



guz-ti-a gizaldi eta gizaldi guz-ti-e-tan. R/. A-men, a-men, a-men.

## PAZKO HIRURRENERAKO

<sup>1</sup> **Zure besotan**, oi kurutzea  
hil jaku Jesus maitea.  
Haren kurutze ezartzailea  
neu naz, neu, pekataria.

**Oi kurutzea! Oi kurutzea!**  
**Kurutze santu, maitea. (bir)**

<sup>2</sup> Jesukristoren odolak zaitu  
Kalbarioan gorritu.  
Ezerk geroztik munduan ez dau  
zuk bezainbat distiratu.

**Jesus maitea zan** azken Afarian  
bera emon nahirik ardu ta ogian.  
Guretzat zalarik hilteko aurrean  
maitasunak eukan bihotza menpean.

**Gurtu daigun beti Jesus Jainko Jauna,**  
**sakramentu honetan gurekin dagoena.**



Apostoluei minez esan deutse:  
«Ni gaur saldua naiz, bihar hilgo nabe.  
Aitarenganako denpora jat bete,  
hona orain zenbat zaituedan maite.»

<sup>1</sup> **Azken Afari ezkeroz**, Jauna, Ogia bide gara iristen  
gure janari zu zera. gure gorputzak lotzera,  
Agindu gozoz lotu gintuzun zugatz-gerria adarrarekin  
zure gorputza hartzera. bat egiten dan antzera.

## SARRERA-ABESTIA

♩ = 60

### GARIZUMAN



1. Goi-goiko Jauna babes dozuna, esan gure Jaun onari:  
"Oi Jainko, zeugan dot konfiantza, Zeu zaitut bizi ta sari."

2. Bere aingeruak ditu ipini zure zaindari bidean,  
zuk estropezu ez egiteko bideko harri artean.

3. Jaunari deutso begiratuko ta distiratsu egongo;  
hark aurpegia alai izango eta ez da lotsatuko.

4. Sortu zuk nigan bihotz garbia, ene Jainko, ni barritu;  
bialdu zeure Espiritua, nire barrua sendotu.

5. Poztu zaiteze, ta Jerusalem maitatu dozuen danok  
zoriontsu izan, egun baltzetan dolu egin zenduenok.

6. Bide zuzena, bizi\_emoilea deustazu erakutsiko.  
Alaitasunez beteko nozu zeure aurrean betiko.



V/. Hona hemen kurutze-habea  
munduaren osasuna zintzilik euki ebana:

**R/. ZATOZE, GURTU DAGIGUN!**

**Jauna, zugana gatoz** guztiz damaturik  
zure aurrean gagoz pekatuz beterik,  
barriro ibili gara galdata zu barik:  
pekatu egiten dogu zugaz izan ezik.

Ba dakizu zer garan: herri pekatari  
horrexegaitik gagoz beti deika zuri,  
entzun egiozu, ba, zure herriari:  
parkatu gure hutsak, erruki!, erruki!

**Damu dot, Jauna,** bihotz guztitik / zu nahigabetu izana.  
Ez, ez gehiago, pekatu-rik, / nere Jaungoiko laztana.

Minaren minez, Jesus maitea, / daukat bihotza leherturik,  
ikusirikan nire bitzita / dana pekatuz beterik.

Zure oinetan orain naukazu / begi-bihotzak urtutzen;  
barru-barruko negar-saminez / parkazinoa eskatzen.